

AZPIAZPIK LAPURTUTAKO DIAMANTEA

Bazen behin Harrianimali izeneko gizon altu, begi more, gihartsu, pertsona ona, eskuzabala eta 32 urtekoa. Esmeralda koloreko diamante bat zuen, baina txikitan zuen lagun batek, lapurtu nahi zion.

Harrianimali, baserri handi batean bizi zen eta katua, txakurra, oiloa, behia, zaldia eta txerri bat zuen. Gizona egunero 9:00etan korrika egitera joaten zen basora.

Egun batean Harrianimali basora joan zen betiko moduan, eta bueltatu zenerako, esmeralda diamantea ez zegoela konturatu zen. Harrianimalik Azpiazpi izango zela pentsatu zuen, eta asmatu egin zuen, bai, Azpilazpi izan zen lapurra!!! Azpiazpi pertsona gaiztoa, baxua, begi beltzeko kolore ilunak gustatzen zitzaion (Beltza, more iluna, urdin iluna eta berde iluna) eta txikia zen, eta bere bila joatea pentsatu zuen.

Bazekien non bizi zen, baso ilun bat zeharkatuz, Tartaloren kobazuloa zeharkatu eta lamien erreka zeharkatuz... Horrela hitz gehiagorik esan gabe aurrera jarraitu zuen.

Basora heltzean, Harrianimalik motxilatik linterna hartu eta beldur gabe joan zen. Basoa ilun-ilun zegoen eta animalia asko baina aurrera jarraitu behar zuen.

Ez zuen beldurrik baina animalia basati asko zeuden. Bat-batean argia ikusi zuen, Baso ilunetik irten egin zen, orain Tartaloren kobazuloa topatu behar zuen.

Orduak eta orduak pasata, aurkitu zuen kobazuloa, barnealdean sartu behar zen, eta sartzekoan armiarma pila zeuden denak uxatu eta aurrera jarraitu zuen.

Atera zenerako gaua zen eta lotan gelditu zen han. Hurrengo goizean lamien erreka joan zen eta han lami mordo bat ikusi zituen, lamiei agur esan eta aurrera jarraitzean zulo batera erori zen baina suertez Azpiazpiren ezkutalekua zen, hara joan eta horrela esan zion:

- Aizu, Azpiazpi!! Eman lapurtutako diamantea!!!
- Ez, ez dizut eman behar!
- Zergatik zara gaiztoa? Lehen oso pertsona ona zinen!
- Baina aldatu egin naiz!
- Barrutik, zu, benetako pertsona ona zara!!
- Bale emango dizut baina ez esan inori, Hartu!
- Nirekin bizitzera etorri nahi duzu?

- Bale

Horrela Azpiazpi baserrira etorri zen bizitzera Harrianimalirekin eta 400.000 diamante izan zituzten.

Hortik aurrera Harrianimali eta Azpiazpi batera bizi eta Txina, Japon Estatu Batuak, New York eta Galiziara joan ziren bidaian. Diamante pila erosi, itsasoan topatu zuten biak batera.

Liburu bat topatu eta edadeak egin zituzten zitun honela esanda:

- Hamar esandakoan nire kamiseta morea bihurtuko da -esan zuen Azpiazpik
- 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10
Pof, entzun eta kamiseta morea bihurtu zen ordu batez.

Ezizena: esmeralda Diamantea.